



BIHAR, 600 DANTZARI BILDUKO DIRA

Errenteria-Oreretan Dantzari Txiki Eguna antolatu dute biharko, eta 600 dantzari etorriko dira » 2

OARSOALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-04-30

VI. URTEA 1.341. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.OARSOALDEKOHITZA.INFO

Aldundia eta Portua «informazioa ezkutatzeko» ari direla salatzen dute

AZPIEGITURAK Pasaiko eta Lezoko gobernu taldeek udalei dagokien eskumenetan sartzeari egotzi diete

SALAKETA «Elkarlanerako sortutako erakundeak aintzat hartu gabe» lan egiten dutela salatzen dute »



Laurak Bat Merkataritza Elkarteko kideak, atzo, Trintxerpen egina zuten kanpainaren aurkezpenean. OLATZ MITXELENA

LAURAK BAT-EK 600 ATERKI JARRI DITU BEZEROEN ESKURA

PASAIA Euriak ezustean harrapatzekotan bezeroek aterkiak eskuratu ahal izango dituzte, ondoren beste dendaren batean itzultzeko » 7



Lupa Dokumentalen Mostraren baitan, 'Lucio' izango da bat. O. HITZA

Lupa Dokumentalen Mostra etzi hasiko da Mikelazulo Kultur Elkartearen

ERRETERIA-ORERETA Donostian gaur hasiko dira emanaldiak; bi mahai-inguru ere izango dira » 3

«Puntako bertsolariekin» hasiko da martxan Bertso Astea

OIARTZUN Asteburu honetan hasiko da, eta datorrenean bukatu » 5

Gipuzkoako Taldekako Txapelketa irabazi dute Alebin Mailan

LEZO Judoka lezoarrak onenak izan dira asteburuan jokaturako txapelketan » 4